ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea hauxe da: “Pasaiako Udalaren gizarte- eta heziketa-arloan eta arlo psikosozialean esku hartzeko udal-zerbitzuan integratutako bi programa gauzatzea” kontratu-balioa duen baldintza teknikoen agirian datozen zehaztapen teknikoekin bat etorriz.

Lizitazioa, esleipenaren ondorioetarako, zati hauetan banatuko da, eta proposamena aurkez daiteke sorta baterako edo guztietarako.

1. SORTA: **Babesik gabe geratzeko arriskuan dauden adingabeak dituzten familientzako programa psiko-hezitzailea.**

2. SORTA: **Pasaiako Udaleko gizarte-zerbitzuen erabiltzaileei zuzendutako gizarte-laguntzako programa.**

Zerbitzu-kontratua izango da.

Kontratuaren objektuaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera:

1. SORTA:

85310000-5 Gizarte laguntza zerbitzuak
85320000-8 – Gizarte Zerbitzuak

LOTE Nº 2:

85312000-9 - Ostaturik gabeko gizarte laguntza zerbitzuak

85310000-5 Gizarte laguntza zerbitzuak

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que con base en el presente pliego se realice, tendrá por objeto el servicio de: “Dos programas integrados en el servicio municipal de intervención socio-educativa y psicosocial del Ayuntamiento de Pasaia”, de conformidad con del pliego de condiciones técnicas, que tendrá carácter contractual.

A efectos de la adjudicación, la licitación se divide en los lotes que a continuación se indican, siendo posible presentar oferta por uno o todos los lotes.

LOTE Nº 1: **Programa psicoeducativo para familias con menores en situación de riesgo de desprotección.**

LOTE Nº 2: **Programa de acompañamiento social dirigido a personas usuarias de los servicios sociales del Ayuntamiento de Pasaia.**

La forma a adoptar será la del contrato de servicios.

Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato:

LOTE Nº 1:

85310000-5 Servicios de asistencia social
85320000-8 Servicios sociales

LOTE Nº 2:

85312000-9 - Servicios de asistencia social sin alojamiento

85310000-5 Servicios de asistencia social

85320000-8 – Gizarte Zerbitzuak

85320000-8 Servicios sociales

2.- EPEA

Sorta bakoitzaren kontratuak urtebeteko iraupena izango du eta, urtebeteko luzapena egin ahal izango dira gehienez 4 urte bete arte. Luzapena egitea kontratazio-organoak erabakiko du, eta lizitatzailearentzat derrigorrezkoa izango da, baldin eta horren jakinarazpena, gutxienez, kontratuaren iraupen-epea baino bi hilabete lehenago egiten bada.

2.- PLAZO

La duración del contrato de cada lote será de 1 año, pudiendo ser prorrogado, anualmente hasta cumplir de 4 años de contrato. La prórroga se acordará por el órgano de contratación y será obligatoria para el licitador, siempre que su preaviso se produzca al menos con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato.

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

3.- PRESUPUESTO DEL CONTRATO

3.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

3.1. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

Sorta bakoitzerako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua hau da:

El presupuesto base de licitación para cada lote es el siguiente:

- 1. SORTA: 210.000 € BEZa salbuetsita.

- LOTE Nº 1: 210.000 € IVA exento.

(BEZa salbuetsita, 37/1992 Legea, abenduaren 28koa, Balio Erantsiaren gaineko Zergarena. 20. artikulua. Bat. 8.)

(IVA exento, Ley 37/1992, de 28 de diciembre, del Impuesto sobre el Valor Añadido. Artículo 20. Uno. 8.º).

Bost unitate prezio ezarri dira:

Se establecen cinco precios unitarios:

Banakako terapia: 58€ orduko

Terapia individual: 58 € por hora

Familia terapia: 86 € orduko

Terapia familiar: 86 € por hora

Terapeutaren koordinazioak eta barne lana: 55 € orduko

Coordinación y trabajo interno Terapeuta: 55 € por hora

Familia hezitzailearen esku hartzea: 41 € orduko

Intervención educativa: 41 € por hora

Familia hezitzailearen koordinazioak eta barne lana: 41 € orduko

Coordinación y trabajo interno educador/a familiar: 41 € por hora

Lizitatzaileek bost unitate prezio horietan oinarritu beharko dute euren eskaintza.

Los licitadores deberán presentar su oferta en base a esos cinco precios unitarios.

Lizitatzaileek unitate prezioak jaisteko eta eskaintza hobetzeko aukera izango dute prezioak soilik beheratu egin daitezke, eta kontzeptu bakar batean prezioak gainditzen badira, aurkeztutako eskaintza lizitaziotik kanpo geratuko da.

Los licitadores tendrán la posibilidad de reducir los precios unitarios y de mejorar la oferta, únicamente se podrá mejor a la baja, de tal manera que su superación conllevará la exclusión de la oferta presentada.

Aurrekontua orientagarria eta baliagarria da soilik aurrekontu-erreserbaren ondorioetarako, baina ez dakar inolako konpromisorik esleipendunekin fakturatzeko orduan.

El presupuesto es meramente orientativo y válido a efectos de reserva presupuestaria, pero no supone en modo alguno compromiso de facturación con las empresas adjudicatarias.

Gutxi gorabeherako ondorioetarako, eta horrek ordu kopuru jakin bat betetzeko inolako betebeharrik gabe, urtean 4.769 orduko gutxi gorabeherako bolumena aurreikusten da

A efectos meramente estimativos, y sin que ello suponga obligación alguna de ejecutar un número determinado de horas, se prevé un volumen anual aproximado de 4.769 horas de prestación del

zerbitzua emateko, eta horietatik 499 ordu inguru koordinazio- eta barne-lanari dagozkio.

Kalkulu hori kalkulatzeko, aldi berean aktibo dauden 18 familia inguru hartu dira erreferentzia gisa, eta, puntualki, esku hartzen ari diren 30 familia eta urtean zehar artatutako 45 familia ingurura irits daiteke.

Zenbatetsitako bolumenaren barruan sartzen dira banakako edo familiako terapia-orduak – ez aldi berean kasu bererako –, hezkuntzako esku-hartzea, koordinazioa eta barneko lan profesionala, baldintza-agiri honetan aurreikusitako hileko gehieneko mugen eta unitateko prezioen arabera.

servicio, de las cuales aproximadamente 499 horas corresponderían a tareas de coordinación y trabajo interno.

Dicha estimación se ha calculado tomando como referencia una media aproximada de 18 familias activas simultáneamente, pudiendo alcanzarse puntualmente hasta 30 familias en intervención y aproximadamente 45 familias diferentes atendidas a lo largo del año.

El volumen estimado incluye horas de terapia individual o familiar —no simultáneas entre sí para un mismo caso—, intervención educativa, coordinación y trabajo interno profesional, conforme a los topes máximos mensuales y precios unitarios previstos en el presente pliego.

Erakunde esleipendunak bere gain hartuko du kontratua gauzatzen hasten den unean aktibo dauden kasuen jarraipena, esku-hartzearen trantsizio eta jarraipen egokia bermatuz. Era berean, ahal den guztietan eta zerbitzuaren antolamenduarekin bateragarria den guztietan, familiekin aldez aurretik esku hartzen ari diren profesionalak mantentzen saiatu beharko du, esku hartzeko prozesuen egonkortasuna errazteko eta ezarritako lotura profesionala zaintzeko.

La entidad adjudicataria asumirá la continuidad de los casos que se encuentren activos en el momento de inicio de la ejecución del contrato, garantizando la adecuada transición y continuidad de la intervención. Asimismo, deberá procurar, siempre que resulte posible y compatible con la organización del servicio, el mantenimiento de los/las profesionales que estuvieran interviniendo previamente con las familias, con el fin de favorecer la estabilidad de los procesos de intervención y preservar el vínculo profesional establecido.

- 2. SORTA: **30.000** eurokoa da (**24.793,39** € gehi BEZri dagozkion **5.206,61** €) kontratu urte bakoitzeko.

Lizitatzaileek euren eskaintzetan prezio hau hobetzeko aukera dute.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontu hori zehazteko kontuan hartu dira zuzeneko
eta zeharkako gastu hauek eta bestelako gastu posibleak:

- Gastu zuzenak: % 89
- Zeharkako gastuak: % 5.
- Enpresa marjina: % 6

- LOTE Nº 2: **30.000 euros** (**24.793,39 €** más **5.206,61** € correspondientes al IVA) por año de contrato.

Esta cantidad podrá ser mejoradas por los licitadores mediante bajas en sus oferta.

Para la determinación del referido presupuesto base de licitación se han tenido en cuenta los siguientes costes directos e indirectos y otros eventuales gastos:

- Costes directos: 89%
- Costes indirectos: 5%
- Margen empresarial: 6%

3.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 939.173,56

3.2. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El valor estimado del contrato se fija en

eurokoada (BEZ gabe), prozedura eta kontratazio-organoa zehazteko ondorio bakarrerako.

4 - FINANTZIAZIO-BIDEAK

Esleipendunak esleipen-akordioan ezartzen den prezioa jasoko du.

Kontratuaren prezioa udal partiden kontura ordainduko da.

Halaber, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak gordetzeko.

5.- ORDAINTZEKO ERA

Bi loteetan hilabetero fakturak ordaindu dira.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, SPKLren 103. artikuluan ezartzen den moduan.

7.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea eratu beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela ziurtatzeko. Horren zenbatekoa 1. SORTAn oinarrizko aurrekontuan %5 izango da eta 2. SORTAn esleipen-prezioaren % 5ekoa, BEZ gabe.

Bermea ezartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adieraziko da, eta berme hori ezarriko da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 108. artikuluan ezarritako edozein bitartekoren bidez. Bermea ezarri izanaren egiaztapena bitarteko elektronikoen bidez egin daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

8. KONTRATUA BURUTZEA

939.173,56 euros (sin IVA), a los únicos efectos de determinar el procedimiento y el órgano de contratación.

4.- VÍAS DE FINANCIACIÓN

El adjudicatario percibirá el precio que se establezca en el correspondiente acuerdo de adjudicación.

El precio del contrato se sufragará a cargo de la partidas muncipales.

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

5.- FORMA DE PAGO

En los dos lotes se facturará mensualmente.

6.- REVISIÓN DE PRECIOS

En el presente contrato no procederá la revisión de precios, según lo establecido en el artículo 103 de la LCSP.

7.- GARANTÍAS

El adjudicatario del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas está obligado a constituir una garantía definitiva por la cuantía equivalente al 5% del importe de del presupuesto base de licitación en el LOTE 1 y 5% del importe adjudicación excluido el IVA en el LOTE 2.

El plazo para la constitución de la citada garantía será el que se señale en la notificación de la adjudicación y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la LCSP La acreditación de su constitución podrá realizarse por medios electrónicos. De no cumplirse este requisito por causas imputables al licitador, la adjudicación a su favor no surtirá efecto.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.

8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratatutako zerbitzua baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera gauzatuko da. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

SPKLren 62.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, kontratuaren arduradun izendatzen da Gizarte Zerbitzuetako departamentuko arduradun teknikoa.

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.

La prestación del servicio contratado se llevará a cabo con sujeción a las condiciones estipuladas en este pliego, y a los pliegos de prescripciones técnicas particulares. La ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

De conformidad con lo previsto en el artículo 62.1. de la LCSP, se designa como responsable del contrato al/la responsable correspondiente del Departamento de Servicios Sociales.

EGIKARITZE BALDINTZA BEREZIAK

A) HIZKUNTZA BALDINTZAK

➢ Zerbitzu honek kudeatzen dituen jarduerak Pasaiako Udala azken urteetan euskararen normalizazioaren alde egiten ari den ahaleginera bilduko dira.

➢

1. SORTA. Babesik gabe geratzeko arriskuan dauden adingabeak dituzten familientzako programa psiko-hezitzailea.

1. Hizkuntza gaitasuna.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo

CONDICIONES ESPECIALES EJECUCIÓN

A) CONDICIONES LINGÜÍSTICAS

➢ Las actividades gestionadas por este servicio deberán de unirse también al esfuerzo que viene realizando el Ayuntamiento de Pasaia en estos últimos años para la normalización del uso del euskera.

LOTE 1: Programa psicoeducativo para familias con menores en situación de riesgo de desprotección.

1. Competencia lingüística.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.8 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, los contratos administrativos suscritos por las entidades locales y demás entidades que conforman el sector público local de Euskadi incluirán las cláusulas que sean precisas para garantizar a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a recibir las actividades o los servicios en los que medie un contrato, en condiciones lingüísticas equivalentes a las que sean exigibles a aquellas, así

zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.

como el cumplimiento de la regulación de la doble oficialidad lingüística del euskera y del castellano.

Era berean, kontuan izango da 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan 14.2 artikuluan dioena. Izan ere araudia aplikatzen denean, oro har, bermatuko da, hizkuntza-araudia eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 7. artikuluaren c) letran eta 9.1 artikuluaren l) letran aurreikusitakoa betetzeko, erabiltzaileek euskara eta gaztelania erabiltzeko askatasuna izango dutela eta erabiltzaileek bi hizkuntza horietako edozeinetan artatuak izateko eskubidea izango dutela, norberak hobesten duenaren arabera.

Asimismo, se tomará en consideración el artículo 14.2 del DECRETO 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, mediante el cual se establece la normativa aplicable, que en su aplicación, con carácter general se garantizará, en cumplimiento de la normativa lingüística y de lo previsto en los artículos 7, letra c y 9.1, letra l de la Ley de Servicios Sociales, la libertad de las personas usuarias para utilizar el euskera y el castellano, y su derecho a ser atendidas, en función de su propia preferencia, en cualquiera de los dos idiomas.

Horiek horrela, babesik gabe geratzeko arriskuan dauden adingabeak dituzten familientzako programa psiko-hezitzaileko zerbitzua da kontratatzekoa, eta zerbitzu horretako enplegatu berriek Pasaiako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, Udalak berak bete behar dituen baldintza berak bermatu beharko dituzte. Horregatik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzan xedatutakoarekin bat, administrazioarekin eta herritarrekin harremana duten aipatutako zerbitzuko langileek honako euskara maila hau izango dute:

En sus relaciones con la administración o terceros, los/las nuevos/as empleados/as del programa psicoeducativo para familias con menores en situación de riesgo y desprotección deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante. Por ello, cumpliendo con lo dispuesto en la Ordenanza Municipal para la Normalización del Uso del Euskera, las personas del servicio al que se ha hecho mención que tengan relación con la administración y la ciudadanía acreditarán el siguiente nivel de euskera:

- Piskoterapeuta: Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 gaitasun mailaren pareko maila egiaztatu beharko du ahoz nahiz idatziz.

- Psicoterapeuta/a: deberá acreditar tanto oralmente como por escrito el nivel de competencia equivalente al C1 del Marco Común Europeo de Referencia.

- Gizarte-hezitzailea: Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 gaitasun mailaren pareko maila egiaztatu beharko du ahoz nahiz idatziz.

- Educador/a social: deberá acreditar tanto oralmente como por escrito el nivel de competencia equivalente al C1 del Marco Común Europeo de Referencia.

- Taldeko arduradun koordinatzailea: Hizkuntzen Europako Erreferentzia Markoari egokitutako C1 gaitasun mailaren pareko maila egiaztatu beharko du ahoz nahiz idatziz.

- El/la terapeuta ocupacional/dinamizador/a deberá acreditar oralmente como por escrito el nivel de competencia equivalente al C1 del Marco Común Europeo de Referencia para las lenguas.

- Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

- Previa adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa.

- Era berean, enpresa kontratatu ondoren pertsona horiek ordezkatzeko enpresak beste norbait izendatzen duen aldiro, izendatutakoak probak egin beharko ditu, zerbitzua ematen hasi aurretik, hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko.

- Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, la empresa designe a otra persona para sustituir a dichos/as profesionales, la persona designada deberá realizar la prueba con carácter previo a su incorporación al servicio, con el objeto de acreditar la competencia lingüística precisa.

➢ Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko bidea hau izango da:

➢ La acreditación de la competencia lingüística se llevará a cabo de la siguiente manera:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna badutela ziurtatzen duen agiria aurkeztuko dute;
2. Agiririk ezean, Administrazioak erabakitako proba egingo dute. Elkarrizketa egingo dute.

- Proba horren emaitzak ez du ondoriorik izango kontratu honen zerbitzutik kanpoko esparruetan.

1. Las personas que vayan a prestar el servicio presentarán un documento acreditativo de la competencia lingüística requerida;
2. A falta de documentación, realizarán la prueba que determine la Administración. Realizarán una entrevista.

- El resultado de dicha prueba no tendrá efectos en ámbitos ajenos a la prestación del presente contrato.

2. Hizkuntza paisaia

Pasaiako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzaren 8. artikuluan zehazten dira errotulaziorako nondik norakoak. Ildo beretik, Udal Ordenantzaren 8. artikulu hori indartu egiten du Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 16. 2 artikuluak, izan ere artikulu horren arabera bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko eta kanpoko errotuluak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, edozein euskarritan. Behar izanez gero, hizkuntza gehiagotan ere agertuko dira, euskarari lehentasuna emanez; hala ere, errotulua euskara hutsez jarri ahal izango da honako kasu hauetan:

a) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
b) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
c) Mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.
d) Euskararen sustapena helburu denean.
e) Hemezortzi urte arteko haur, nerabe eta gazteentzako berariazko espazioetan edo jardueretan (ludotekak, gaztelekuak, haurtxoko, etab.)
f) Hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo komunikazioen gaiengatik euskaraz egiten diren jardueretan.

Hortaz, taldeak elkartzeko jartzen diren errotuluak, pertsonen zerrendak, eta bestelako zeinahi iragarki edo idazkun aurreko paragrafoan zehaztutako irizpideen bidez egingo dira.

2. Paisaje lingüístico

El artículo 8 de la Ordenanza Municipal de Normalización del Uso del Euskera de Pasaia define los términos de la rotulación. En el mismo sentido, el artículo 16.2 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi refuerza el citado art. 8 de la Ordenanza municipal, ya que establece que los rótulos interiores y exteriores de las oficinas y otras instalaciones de las entidades locales se redactarán en ambas lenguas oficiales, cualquiera que sea su soporte. Si fuera necesario, también aparecerán en más idiomas, dando prioridad al euskera; no obstante, el rótulo podrá colocarse exclusivamente en euskera en los siguientes casos:

a) Cuando la grafía del texto sea muy similar en euskera y castellano.
b) Cuando el rótulo en euskera no dé lugar a confusión.
c) Cuando el mensaje venga acompañado de un pictograma que haga inequívoca su comprensión.
d) Cuando tenga por objeto la promoción del euskera.
e) En espacios o actividades específicas para niños, niñas, adolescentes y jóvenes de hasta dieciocho años (ludotecas, gaztelekus, bebé, etc.).
f) En aquellas actividades que se realicen en euskera por las características de las personas destinatarias (edad, competencia lingüística, ámbito...) o por los temas de las comunicaciones.

Por tanto, los rótulos, listas de personas, y cualquier otro anuncio o letrero que se instale al objeto de reunir grupos, se realizarán mediante los criterios establecidos en el párrafo anterior.

3.- Harremana herritarrekin

Udalak herritarrekin betetzekoak dituen hizkuntza-baldintza berak bete beharko ditu zerbitzuak erabiltzaileekin artatzen ari denean.

a) Ahozkoari dagokionez: Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko lehen harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik, bileretan…) euskaraz izango du enplegatuak.
Segidan, herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

Jarduketak euskaraz egingo dira, oro har, euskararen sustapena helburu denean; eta haur, nerabe eta gazteei (0 - 18 urte) zuzendutakoak direnean eta hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo komunikazioen gaiengatik euskaraz egin litezkeenean, nolanahi ere, herritarren eskubideak bermatuta badaude.
Hortaz, haur, nerabe eta gazteei (0-18 urte) zuzendutako jarduketak euskaraz egingo dira, oro har. Alabaina, zerbitzuaren berezitasunagatik salbuespenak egingo dira, bereziki, interesdunak eskaera gaztelaniaz egiten duenean.

Helduekin zerbitzu hizkuntzan gertatzen diren hizkuntza eskubideen urraketak saiheste aldera, helduek euskara ulertzen badute, zerbitzua euskaraz emango dute. Hartara, bi hizkuntza ofizialen erabileren arteko desoreka erreala murrizten joango da, eta euskaraz egin nahi duenak lasai egiteko aukera izango du taldean. Irizpide nagusia da egoerak ahalbidetzen duen guztietan euskara erabiltzea. Nolanahi ere, erabiltzaileak nahi duen hizkuntzan hitz egingo du.

b) Idatzizkoari dagokionez: enpresak sortzen dituen era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, txostenak, memoriak) euskaraz, edo, beharrezkoa denean, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udalaren Euskara Sailera eramango dira.

Hainbat belaunalditako pertsonak elkartzen direnean eta elkarrekin jarduerak egiteko guneak sortzen dituztenean, batez, ere haur, nerabe eta adinekoen artean, kontuan izango da Pasaiako Udalak hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideen dokumentuan zer jasota duen: jarduketak euskaraz

3.- Relación con la ciudadanía

La atención a las personas usuarias se llevará a cabo en condiciones lingüísticas idénticas a las que de hecho se exijan a la administración.

a) Relaciones verbales: de conformidad con los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento, la atención verbal inicial a la ciudadanía (atención inicial, telefónica, contestadores, presencial, megafonía, reuniones,...) se hará en euskera.
La conversación continuará en el idioma elegido por el/la ciudadano/a.

Las actuaciones se podrán realizar sólo en euskera cuando su finalidad sea la promoción de la lengua vasca; cuando vayan dirigidas a niños, niñas, adolescentes y jóvenes (0-18 años); cuando las características de las personas destinatarias lo permitan (edad, competencia lingüística, ámbito...); o cuando se trate de comunicaciones que por razón de los temas puedan realizarse en euskera, siempre que, en todo caso, se garanticen los derechos de la ciudadanía.

Para evitar vulneraciones de derechos lingüísticos en la lengua de servicio con las personas adultas, si estas entienden el euskera, el servicio se prestará en euskera. De esta manera, se irá minimizando el desequilibrio existente en la utilización de las dos lenguas oficiales, y quien quiera hablar en euskera tendrá la oportunidad de hacerlo con tranquilidad en el grupo. El criterio principal es utilizar el euskera siempre que las circunstancias lo permitan. En cualquier caso, el/la usuario/a hablará en el idioma que desee.

b) Relaciones escritas: las notificaciones y comunicaciones escritas por la empresa (impresos, notas, avisos, horarios, informes, memorias) se realizarán en euskera, o si es necesario, en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

La empresa contratada deberá garantizar que en la prestación del servicio los textos utilizados en euskera son correctos y adecuados. Para ello, los textos de amplia difusión o uso repetitivo se enviarán al Departamento de Euskera del Ayuntamiento.

Cuando se reúnan personas de diferentes generaciones y se creen espacios para realizar actividades conjuntas, especialmente entre niños, niñas, adolescentes y personas mayores, se tendrá en cuenta aquello que el Ayuntamiento de Pasaia tiene recogido en el documento de criterios de uso de las lenguas oficiales: con carácter general, las

egingo dira, oro har, euskararen sustapena helburu denean; baita haurrei, nerabeei eta gazteei (0-18 urte) zuzendutako jarduketak direnean, eta hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo jarduketen gaiengatik euskaraz egin litezkeenak direnean ere, baldin eta hartzaile diren herritarren eskubideak bermatuta badaude.

actuaciones se desarrollarán en euskera cuando tengan por objeto la promoción del euskera, así como cuando se trate de actuaciones dirigidas a la infancia, adolescencia y juventud (0-18 años), y aquellas que por las características de las personas destinatarias (edad, competencia lingüística, ámbito...) o por la temática de las actuaciones puedan realizarse en euskera, siempre que estén garantizados los derechos de la ciudadanía destinataria.

4.- Harremana Administrazioarekin

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan. Kontratu honen bidez sortzen dituen idatzizko komunikazio guztiak (kontratu, faktura, txostenak, kontsultak...) eta gainerako agiriak (memoriak, ...) euskaraz aurkeztuko dizkio Pasaiako Udalari, eta beharrezko denean, herritarren edo interesdunen eskubideak bermatzearren, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanda. Udaleko teknikari eta ordezkari politikoekin ahozko harremana euskaraz izango da.

4.- Relación con la administración

La empresa adjudicataria actuará de conformidad con el régimen lingüístico del Ayuntamiento en todos los cometidos objeto del contrato. Por ello, todas las comunicaciones (contratos, facturas, informes, consultas, ...) y documentos generados que correspondan a este contrato (memorias, …) y se presenten en el Ayuntamiento de Pasaia estarán redactados en euskera, y cuando sea necesario, al objeto de garantizar los derechos de la ciudadanía o de las personas interesadas, en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. La relación verbal con el personal técnico y los/las representantes políticos se desarrollará en euskera.

2. Sorta. Pasaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileei zuzendutako gizarte-laguntzako programa

Lote 2. Programa de acompañamiento social dirigido a personas usuarias de los servicios sociales del Ayuntamiento de Pasaia.

1. Hizkuntza gaitasuna.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7.8 artikuluan ezarritakoarekin bat etorrita, Euskadiko toki-entitateek eta Euskadiko tokiko sektore publikoa osatzen duten gainerako entitateek egiten dituzten kontratuetan kasu bakoitzean beharrezkoak diren klausulak sartuko dira, batetik, herritarrei bermatzeko toki-erakundeei exijitzen zaizkien hizkuntza-baldintza berberetan jaso ahal izatea kontratu bidezko jarduerak edo zerbitzuak eta, bestetik, euskararen eta gaztelaniaren hizkuntza-ofizialtasunaren erregulazioa betetzeko.

1. Competencia lingüística.

De acuerdo con lo dispuesto en el artículo 7.8 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi, los contratos administrativos suscritos por las entidades locales y demás entidades que conforman el sector público local de Euskadi incluirán las cláusulas que sean precisas para garantizar a los ciudadanos y ciudadanas el derecho a recibir las actividades o los servicios en los que medie un contrato, en condiciones lingüísticas equivalentes a las que sean exigibles a aquellas, así como el cumplimiento de la regulación de la doble oficialidad lingüística del euskera y del castellano.

Era berean, kontuan izango da 185/2015 DEKRETUA, urriaren 6koa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzkoan 14.2 artikuluan dioena. Izan ere araudia

Asimismo, se tomará en consideración el artículo 14.2 del DECRETO 185/2015, de 6 de octubre, de cartera de prestaciones y servicios del Sistema Vasco de Servicios Sociales, mediante el cual se

aplikatzen denean, oro har, bermatuko da, hizkuntza-araudia eta Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearen 7. artikuluaren c) letran eta 9.1 artikuluaren l) letran aurreikusitakoa betetzeko, erabiltzaileek euskara eta gaztelania erabiltzeko askatasuna izango dutela eta erabiltzaileek bi hizkuntza horietako edozeinetan artatuak izateko eskubidea izango dutela, norberak hobesten duenaren arabera.

establece la normativa aplicable, que en su aplicación, con carácter general se garantizará, en cumplimiento de la normativa lingüística y de lo previsto en los artículos 7, letra c y 9.1, letra l de la Ley de Servicios Sociales, la libertad de las personas usuarias para utilizar el euskera y el castellano, y su derecho a ser atendidas, en función de su propia preferencia, en cualquiera de los dos idiomas.

Horiek horrela, Pasaiako Udaleko Gizarte Zerbitzuen erabiltzaileei zuzendutako gizarte-laguntzako zerbitzua da kontratatzekoa, eta zerbitzu horretako enplegatu berriek Pasaiako Udalarekin eta hirugarrenekin harremana duten neurrian, Udalak berak bete behar dituen baldintza berak bermatu beharko dituzte. Horregatik, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzan xedatutakoarekin bat, administrazioarekin eta herritarrekin harremana duten aipatutako zerbitzuko langileek honako euskara maila hau izango dute:

En sus relaciones con la administración o terceros, los/las nuevos/as empleados/as del programa de acompañamiento social dirigido a personas usuarias de los Servicios Sociales del Ayuntamiento de Pasaia deben garantizar, en lo que a sus competencias lingüísticas se refiere, unas condiciones similares a las que de hecho se exijan a la administración contratante. Por ello, cumpliendo con lo dispuesto en la Ordenanza Municipal para la Normalización del Uso del Euskera, las personas del servicio al que se ha hecho mención que tengan relación con la administración y la ciudadanía acreditarán el siguiente nivel de euskera:

- Programaren koordinatzailea: Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren C1 gaitasun mailaren pareko maila egiaztatu beharko du ahoz nahiz idatziz.

- Coordinador/a del programa: deberá acreditar tanto oralmente como por escrito el nivel de competencia equivalente al C1 del Marco Común Europeo de Referencia.

- Laguntzeko teknikaria: Europako Erreferentzia Marko Bateratuaren B2 gaitasun mailaren pareko maila egiaztatu beharko du ahoz nahiz idatziz.

- Técnico/a del acompañamiento: deberá acreditar tanto oralmente como por escrito el nivel de competencia equivalente al B2 del Marco Común Europeo de Referencia.

- Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak zerbitzua emango duten pertsonek badutela eskatutako hizkuntza gaitasuna.

- Previa adjudicación del contrato, la empresa deberá verificar que las personas encargadas de prestar el servicio poseen la competencia lingüística precisa.

- Era berean, enpresa kontratatu ondoren pertsona horiek ordezkatzeko enpresak beste norbait izendatzen duen aldiro, izendatutakoak probak egin beharko ditu, zerbitzua ematen hasi aurretik, hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko.

- Asimismo, en caso de que, una vez iniciado el contrato, la empresa designe a otra persona para sustituir a dichos/as profesionales, la persona designada deberá realizar la prueba con carácter previo a su incorporación al servicio, con el objeto de acreditar la competencia lingüística precisa.

➢ Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeko bidea hau izango da:

➢ La acreditación de la competencia lingüística se llevará a cabo de la siguiente manera:

1. Zerbitzua eman behar duten pertsonek eskatutako hizkuntza gaitasuna badutela ziurtatzen duen agiria aurkeztuko dute;
2. Agiririk ezean, Administrazioak erabakitako proba egingo dute. Elkarrizketa egingo dute.

1. Las personas que vayan a prestar el servicio presentarán un documento acreditativo de la competencia lingüística requerida;
2. A falta de documentación, realizarán la prueba que determine la Administración. Realizarán una entrevista.

- Proba horren emaitzak ez du ondoriorik izango kontratu honen zerbitzutik kanpoko esparruetan.

- El resultado de dicha prueba no tendrá efectos en ámbitos ajenos a la prestación del presente contrato.

2. Hizkuntza paisaia

2. Paisaje lingüístico

Pasaiako Euskararen Erabilera Normalizatzeko Udal Ordenantzaren 8. artikuluan zehazten dira errotulaziorako nondik norakoak. Ildo beretik, Udal Ordenantzaren 8. artikulu hori indartu egiten du Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzko azaroaren 19ko 179/2019 Dekretuaren 16. 2 artikuluak, izan ere artikulu horren arabera bulegoetako eta beste azpiegitura batzuetako barneko eta kanpoko errotuluak hizkuntza ofizial bietan idatziko dira, edozein euskarritan. Behar izanez gero, hizkuntza gehiagotan ere agertuko dira, euskarari lehentasuna emanez; hala ere, errotulua euskara hutsez jarri ahal izango da honako kasu hauetan:

El artículo 8 de la Ordenanza Municipal de Normalización del Uso del Euskera de Pasaia define los términos de la rotulación. En el mismo sentido, el artículo 16.2 del Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, de normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi refuerza el citado art. 8 de la Ordenanza municipal, ya que establece que los rótulos interiores y exteriores de las oficinas y otras instalaciones de las entidades locales se redactarán en ambas lenguas oficiales, cualquiera que sea su soporte. Si fuera necesario, también aparecerán en más idiomas, dando prioridad al euskera; no obstante, el rótulo podrá colocarse exclusivamente en euskera en los siguientes casos:

g) Testuaren grafia euskaraz eta gaztelaniaz oso antzekoa denean.
h) Euskarazko errotuluak nahasmenik sortzen ez duenean.
i) Mezuarekin batera, piktograma bat ere badagoenean, esanahia argitzeko.
j) Euskararen sustapena helburu denean.
k) Hemezortzi urte arteko haur, nerabe eta gazteentzako berariazko espazioetan edo jardueretan (ludotekak, gaztelekuak, haurtxoko, etab.)
l) Hartzaileen ezaugarriengatik (adina, hizkuntza gaitasuna, esparrua...) edo komunikazioen gaiengatik euskaraz egiten diren jardueretan.

g) Cuando la grafía del texto sea muy similar en euskera y castellano.
h) Cuando el rótulo en euskera no dé lugar a confusión.
i) Cuando el mensaje venga acompañado de un pictograma que haga inequívoca su comprensión.
j) Cuando tenga por objeto la promoción del euskera.
k) En espacios o actividades específicas para niños, niñas, adolescentes y jóvenes de hasta dieciocho años (ludotecas, gaztelekus, bebé, etc.).
l) En aquellas actividades que se realicen en euskera por las características de las personas destinatarias (edad, competencia lingüística, ámbito...) o por los temas de las comunicaciones.

Hortaz, taldeak elkartzeko jartzen diren errotuluak, pertsonen zerrendak, eta bestelako zeinahi iragarki edo idazkun aurreko paragrafoan zehaztutako irizpideen bidez egingo dira.

Por tanto, los rótulos, listas de personas, y cualquier otro anuncio o letrero que se instale al objeto de reunir grupos, se realizarán mediante los criterios establecidos en el párrafo anterior.

3.- Harremana herritarrekin

Udalak herritarrekin betetzekoak dituen hizkuntza-baldintza berak bete beharko ditu zerbitzuak erabiltzaileekin artatzen ari denean.

a) Ahozkoari dagokionez: Udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz, herritarrekin ahozko lehen harremana (lehen hitza, telefonoz, erantzungailuan, aurrez aurrekoan, bozgorailutik,

3.- Relación con la ciudadanía

La atención a las personas usuarias se llevará a cabo en condiciones lingüísticas idénticas a las que de hecho se exijan a la administración.

a) Relaciones verbales: de conformidad con los criterios lingüísticos aprobados por el Ayuntamiento, la atención verbal inicial a la ciudadanía (atención inicial, telefónica, contestadores, presencial,

bileretan…) euskaraz izango du enplegatuak. Segidan, herritarrak aukeratzen duen hizkuntzan jarraituko du elkarrizketa.

b) Idatzizkoari dagokionez: enpresak sortzen dituen era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak (inprimakiak, oharrak, abisuak, ordutegiak, txostenak, memoriak) euskaraz, edo, beharrezkoa denean, euskaraz eta gaztelaniaz idatziko dira, euskarazkoari lehentasuna emanez.

Zerbitzua ematean erabiltzen diren euskarazko testuak zuzenak eta egokiak izatea bermatu beharko du kontratatutako enpresak. Hori ziurtatzeko zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak Udalaren Euskara Sailera eramango dira.

4.- Harremana Administrazioarekin

Enpresa esleipendunak Udalaren hizkuntza araudiaren arabera jokatuko du kontratuaren xede diren jarduera guztietan. Kontratu honen bidez sortzen dituen idatzizko komunikazio guztiak (kontratu, faktura, txostenak, kontsultak...) eta gainerako agiriak (memoriak, ...) euskaraz aurkeztuko dizkio Pasaiako Udalari, eta beharrezko denean, herritarren edo interesdunen eskubideak bermatzearren, euskaraz eta gaztelaniaz, euskarazkoari lehentasuna emanda. Udaleko teknikari eta ordezkari politikoekin ahozko harremana euskaraz izango da.

megafonía, reuniones,...) se hará en euskera. La conversación continuará en el idioma elegido por el/la ciudadano/a.

b) Relaciones escritas: las notificaciones y comunicaciones escritas por la empresa (impresos, notas, avisos, horarios, informes, memorias) se realizarán en euskera, o si es necesario, en euskera y castellano, dando prioridad al euskera.

La empresa contratada deberá garantizar que en la prestación del servicio los textos utilizados en euskera son correctos y adecuados. Para ello, los textos de amplia difusión o uso repetitivo se enviarán al Departamento de Euskera del Ayuntamiento.

4.- Relación con la administración

La empresa adjudicataria actuará de conformidad con el régimen lingüístico del Ayuntamiento en todos los cometidos objeto del contrato. Por ello, todas las comunicaciones (contratos, facturas, informes, consultas, ...) y documentos generados que correspondan a este contrato (memorias, …) y se presenten en el Ayuntamiento de Pasaia estarán redactados en euskera, y cuando sea necesario, al objeto de garantizar los derechos de la ciudadanía o de las personas interesadas, en euskera y castellano, dando prioridad al euskera. La relación verbal con el personal técnico y los/las representantes políticos se desarrollará en euskera.

B) GIZARTE EDO ENPLEGU ARLOKOAK.

Oro har, kontratuaren egikaritze baldintza berezi bezala ezartzen dira honako hauek: Gizarte Segurantzari eta Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legezko xedapenak betetzea eta, bereziki, hitzarmen kolektibo aplikagarria betetzea.

Halaber, kontratuaren egikaritze baldintza berezi gisa ezartzen da kontratistak Ogasun Publikoarekiko eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak betetzea.

Era berean, kontratuaren egikaritzean parte hartzen duten azpikontratista guztiek bete beharko dituzte kontratuan jasotako egikaritze baldintza berezi guztiak.

Esleipenduna subrogatu egin beharko da, administrazio baldintza partikularren agiriko V eranskinean jasotzen diren lar-arloko harremanei dagokienez.

B) DE TIPO SOCIAL O RELATIVAS AL EMPLEO.

Con carácter general, se establecen como condiciones especiales de ejecución del contrato el cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, y en particular el cumplimiento del convenio colectivo que resulte de aplicación.

Asimismo, se establece como condición especial de ejecución del contrato el cumplimiento del contratista de sus obligaciones respecto a la Hacienda Pública y a la Seguridad Social.

Todas las condiciones especiales de ejecución que formen parte del contrato serán exigidas igualmente a todos los subcontratistas que participen de la ejecución del mismo.

El adjudicatario deberá subrogarse en las relaciones laborales del personal a que se refiere el anexo V del pliego de cláusulas administrativas particulares.

C) BERDINTASUNA.

1. Kontratatutako pertsona edo entitate juridikoak arau hauetan jarritako betebeharrak bete behar ditu: 3/2007 Lege Organikoa, 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duena; 9/2017 Legea, kontratuena. Horretarako, honakoa eskatuko da:

   - 50 langiletik gorako enpresei Berdintasun Planaren erregistro-orria eta ordainsarien auditoria-erregistroa egina dutela egiaztatzea. (901/2020 Errege Dekretua, Berdintasun Planen erregistroari buruzkoa eta 902/2020 Errege Dekretua, emakume eta gizonen ordainsarien berdintasunari buruzkoa).

